



239. zenbakia

· AHIRILA 2024 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



HATZ ERAKUSLEA

Iñaki Irazu – Zakur zaunkak (Susa, 2023)



Ume bat ari da
Istanbulen
banan-banan
plazan dauden
telefono saileko
kabinak ikertzen,
txanpon alerik
bai ote den
hatz erakuslea
txuloetan sartzen

keinuhurra
duela aurpegian,
laster zoroan
inguruan dabiltzan
kotxe, motorren
burrunba ozen,
pauso bizian
ondotik
iragaten zaion
jendearen artean.

Keinuhurra
duela aurpegian:
zuhurregia, agian,
bere adinean,
arreta osoa
jarria duelarik
bere ariketan,
ardura handiko
beharrean bailitz,
kontu handiz.

Halako batean
agure bat, ordea,
zaio hurreratu,
hatz erakuslea
goraka harrotuz
zertan ari den
kargu hartzen,
eta puska batean
jardun ere bai
berajorratzen.

Umeak, ordea,
isilik, baina
burua goraka
keinuhurrari
eutsi egin...
halako batean
agureak alde
egin dionean
bere beharrari
berriez kiteko.

Ume bat ari da
Istanbulen
banan-banan
kabinak ikertzen,
hots egin ondoren
inork ahazturik,
haien txuloetan
jaso gabeko
txanpon alerik
bai ote den.

Hautatu



3 hedabide

komunikazioa

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Peio Etxeberría, semea besoetan, eta, Joxe Javier Zabaleta bikotearekin, binakako txapela eta trofeoa jaso berrian. Argazkia: Foku

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 13an bidalia

AURKIBIDEA

04	Gaurko gaia. <i>Haize errotrak</i>
07	Ingurumena. <i>Txertaketa</i>
08	Kronika. <i>Denok bat</i>
10	Albisteak.
15	Iritzia. <i>Euskal Herrian Euskaraz</i>
23	Elkarrizketa. <i>Ezpela Euskara Taldea</i>
20	Ekimenak. <i>NUPeKo Sustraiak programa</i>
22	Herrian bertan. <i>Basaburuko taxia</i>
24	Aspaldiko kontuak. <i>Berueteko lapurrak (I)</i>
27	Ardo Frexkoa.
28	Kirola. <i>Peio Etxeberría, binakako txapelduna</i>
30	Zer ikusi <i>amezti.eus-en Apirila</i>
32	Zer irakurri. <i>Ultzamako liburutegia</i>
34	Jaiotzak eta heriotzak. <i>Otsaila</i>



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Eolikoak Imotzen eta Basaburuan?

Proiektu eoliko eta fotoboltaikoak ugaritu egin dira azken urteotan Nafarroan, diotenez, energia trantsiziorako bidean sakontzeko asmoz. Eta, badirudi eolikoaren trena Basaburuan eta Imotza ere iritsi dela; izan ere, proiektu eolikoak martxan jartzeko hasierako pausoa eman du enpresa batek, bi Udalei partzelen inguruko informazioa eskatuz. Ikusteke dago egitasmoak zer bilakaera izanen duen.

Savanna Power Solar izeneko enpresa sevillarra da bi Udalekin harremanetan jarri dena. Enpresa horrek bost parke eoliko desberdin aurkeztu ditu Basaburuko udaletxean, proiektu bakoitza errota bakarrekoa. Guztira, beraz, bost dira planteatu dituzten errotak. Imozko kasuan, ebakuazio linearen txostena da aurkeztu dutena, alegia, parkeok sortuko luketen elektrizitatea handik ateratzeko azpiegitura.

Bi udaletako ordezkariak nabarmendu dutenez, hasiera-hasierako fasean legoke proiektua, eta partzelen inguruko informazio eskaera da momentuz egin dutena. Imotzen eta Basaburuan bezala, hurbileko beste zenbait udaletan ere sartu dituzte eskaerak: Izan, Arakilen, Gesalitzen, Goñin eta Anuen, besteak beste. Olaiibar inguruan ere beste proiektu baten inguruko bilera irekiak egin dituzte. Gurean, informazio eskaerarekin batera, proiektuen inguruko xehetasunak azaltzen dituzten txostenak ere sartu dituzte udaletxeetan.

Bost parke eoliko, edo parke bakarra?

Arraroa dirudi hasiera batean parke eoliko bakar baten baitan errota guztiak sartu beharrean – atzean enpresa bera egonik – errota bakoitzerako parke eoliko proiektu desberdin bat aurkeztu izana. Sustrai Erakuntza fundazioko Martin Zelaia kideak azaldu duenez, dena dela, ez

da hain arraroa kontua, eta azken aldiak toki gehiagotan ere banaka aurkeztu dituzte errota proiektuak. “5MW-ko proiektu eoliko bat parke eoliko txiki baten gisara saldu daiteke, normalean 40MW-koak edo gehiagokoak izaten direlako. Baina, noski, hor tranpa dago, zeren, zuk hemen errota bateko 5MW-ko parke bat planteatzen baduzu, eta ondoan beste bat, eta harago beste bat... azkenean, parke bera da, eta energia guztia subestazio berera doa”, adierazi du.

Azkenean, 4,99MW-ko bost parke planteatu dituzte txostenetan, beraz, guztira, 24,95MW-ko parke batez

25MW
inguruko parke
eolikoak da
Basaburua eta
Imotzen planteatu
dutena

ariko ginateteke hizketan. Udabe-Beramendiko, Urritzako eta Itsasoko zenbait partzeletan kokatu dituzte proiektatutako bost errotak, eta Basaburua 66/30kV subestazioa ere, Udabe-Beramendiko lursail batean, Dorrea gaztandegitik oso gertu. Handik, tentsio altuko linea bidez aterako lukete sortutako elektrizitatea. Ebakuazio linea hori Udabe-Beramenditik Ihaben aldera joanen litzateke, handik Imotza sartu, Etxaleku, Oskotz eta Zarrantz ondotik igaroko litzateke Izan sartzeko. Izatik Arakilera pasatuko litzateke, han, Orkoien-Irurtzun tentsio altuko lineari elkartzeko.

As de Guía 11, Ballestrinque 11, Ballinger 11, Carabela 11 eta Carraca 11 izena dute bost parkeek. Zergatik 11 zenbaki hori? Badirudi, enpresa berak Nafarroako beste parke proiektu batzuetan ere izen berberak erabili dituela, baina beste zenbaki batekin. Zangotzaldean daude izen bereko proiektuak 3 zenbakiarekin (As de Guía 3, Ballestrinque 3...), eta Monreal inguruan 10 zenbakidunak.



Berueteko haize errotak ▲



Proiektuko erroten dorreek 105 metroko altuera dute, eta hegalek, berriz, 70 bat metrokoa

Erroten eta parkearen ezaugarriak

Basaburuan ezagunak zaizkigu haize errota lehenagotik ere; izan ere, Berueteko eta Leitzako parkea izan zen Nafarroako mendialdean jarri zen lehena. Gaur egun eraikitzen diren parke berrietako erroten ezaugarriak guztiz bestelakoak dira, dena den. Ideia bat egiteko, Berueteko parkeko errota bakoitzak 600kW-

ko potentzia badu, gaurko errota batek 4,99MW (4.990kW) izan ohi ditu, zortzi aldiz gehiago.

Baina, energia sortzeko gaitasuna ez da handitzen den gauza bakarra, erroten tamaina ere askoz handiagoa baita gaur egun: Berueteko dorreek 40 metro eta hegalek 21 metro zituzten (guztira, 61 metro inguruko altuera), baina proiektu honetan planteatzen diren erroten dorreek 105 metroko altuera izanen lukete, eta hegalek, 70 metro baino gehiago (ia 180 metroko altuera, guztira).

Tamaina horretako errota tokira garraiatzeko 6 metroko zabalera bideak irekitzea aurreikusten da proiektuaren txostenean, eta zimentazioetarako, 22,20 metroko diametroz zapata zirkularra eraikitzea. Sustrai Erakuntzako kideak nabarmendu duenez, dena den, tamaina horretako errota asko akatsak eta arazo teknikoak ematen hasi dira zenbait tokitan, eta horri dagokio, hein batean, parke eoliko handiak eraikitzeko lasterketan eten bat edo abiadura moteltze bat gertatu izana. Badirudi enpresa eoliko handiak egoera aztertzen ari direla aurrera nola egin pentsatzeko.

Zein enpresa dago egitasmoon atzean?

Esan bezala, Sevillako Savana Power Solar enpresaren izenean egin da informazio eskaera Basaburuko eta Imozko udalengan. Sevillako enpresa hori Arena Green Power berriztagarrien enpresa ezagunari dago lotuta, Nafarroan parke eoliko eta fotoboltaiko ugari planteatzen ari den enpresa taldea. Urrian, Nafarroako egunkari nagusietako batek nabarmendu zuenez, Sevillako Arena Green Power enpresak 450 milioi euro inbertitu ditu Nafarroan proiektu berriztagarriak martxan jartzeko.

Enpresaren Nafarroako arduradunak elkarrizketa batean nabarmendu zuenez, haien proiektuak 'txikiagoak' dira, eta modu horretan, herritarren eta udalen partetik harrera hobea izanen dutela aurreikusten dute. Diotenez, ingurumen eragina txikiagoa da modu horretan planteatuta, eta errazagoa zaie 'proiektuak herrietako politiken baitan integratuak egotea'. Errota bakoitza proiektu desberdin batean aurkeztu izana parke txikien irudia emateko estrategia horren baitan uler daiteke, akaso? Edozein modutan, Imozko eta Basaburuko udalek proiektuaren kontrako jarrera adierazi dute. Azpimarratu dutenez, badira zenbait hilabete enpresak lehen informazio eskaera egin zuenetik, eta geroztik ez da mugimendu gehiagorik izan. Ikusiko da zer gertatzen den aurrera begira.

Herritarrek zer diote?

Proiektuak kezka eta interesa sortu du Imozko eta Basaburuko herritarren partetik. Otsailaren 16an hitzaldi informatiboa antolatu zuen eskualdeko herritar talde batek, proiektuaren inguruko xehetasunak biltzeko eta aurkezteko helburuarekin. Sustrai Erakuntza elkarteko kideak ere izan ziren bertan, Nafarroan energia berriztagarrien bueltan gertatzen ari diren mugimenduak testuinguruan kokatzeko helburuarekin. Horrez gain, Basaburuko eta Imozko udalek ere parte hartu zuten hitzaldian. 70 bat lagun elkartu ziren lehen hitzordu hartan, eta herritar talde batek gaia lantzen segitzeko asmoa ere erakutsi du.



Haize errota Aritz mendian, Leitzan ▲



Energia trantsizioaren estrategiaren aurrean zalantzak

Bestetik, Sustrai Erakuntza elkartetik salatzen dutenez, Europa mailan martxan den planifikazio baten baitan gertatzen ari da Nafarroan ere berriztagarrien boom-a. "Zergatik dator berriztagarrien olatu hau? Bada, Europan energia asko kontsumitzen dugulako, eta gehiena erregai fosiletatik datorrelako. Horiek CO2 isurketak eragiten dituzte, eta aldatu beharra dago. Horren aurrean, bultzatzen ari diren planifikazioak dio berriztagarri handiak jarri behar direla, baina gu ez gaude horrekin ados. Zergatik? Batetik, berriztagarri horiek eraikitzerakoan eta muntatzerakoan ere CO2 asko isurtzen delako, eta baita horiek eraikitzeko behar diren materialak ateratzerakoan ere, kobrea kasu", dio kideak.

Baina, ez hori bakarrik. Kontuan izateko beste datu bat da, Nafarroan, kontsumitzen den energia guztiaren %20 soilik dela elektrizitatea, eta kontsumo hori ez doala gora, berdin mantentzen ari dela. "Beraz, uste dugu okertzen ari garela trantsizio energetiko delako horrekin, eta beste konponbide batzuk bilatu behar direla", azpimarratu dute elkarte ekologistatik.



Txertaketa, edo zuhaitzen magia?

Neguarekin batera, badoa neguko txertaketen garaia ere. Izan ere, martxo-apiril inguruan egiten da adar edo mentu bidezko txertaketa. Baina, zer da zehazki txertaketa? Zergatik egiten da, eta nola funtzionatzen du? Zuhaitzen txertaketak gizakienarekin batera zerikusirik ez duenez, gai honen inguruan sakonduko dugu hilabete honetako ingurumen tartean

Antzinatek erabili den nekazaritzako teknika da zuhaitzen txertaketa, eta teknika horri esker iritsi dira guganaino, belaunaldiz belaunaldi igarota, interes handiko zuhaitz barietate ugari. Baina, zergatik diogu magia kutsua duela txertaketak? Bada, teknika honek zuhaitz edo landare baten oinean beste mota bateko zuhaitz edo landarea txertatzea ahalbidetzen duelako, biak elkarrekin hazteko. Adibidez, sagarrondo oin bati udareondo baten mentua txertatuz gero, txertatu den udare mota emanen du zuhaitzak.

Etorkizuneko landarearen oina izango den horri modu askotara deitzen zaio, Euskal Herriko toki batetik bestera aldatu egiten baita: txertaka, txertakina, mentu oina, basaka, makatza... eta, oin horri eransten zaion adartxoari, berriz, txertoa edo mentua esaten zaio.

Uda garaian beste txertaketa mota bat ere egiten da, begi-mentuarena, baina, garai honetan, negu partean, adar-mentu bidezko txertaketa egiten da.

Nola eta zertarako egin?

Jaso nahi dugun fruituaren zuhaitzari mentuak atera behar dizkiogu lehenik. Demagun, sagar oso gozoa ematen duen zuhaitz bat dugula begiz jota. Bada, zuhaitz horri adartxo txikiak, mentuak aterako dizkiogu. Eta, mentuak atera dizkiogun landare horri genetikoki hurbil xamarrekoa zaion beste bati –demagun, sagar patxaka bati, edo udare basati bati–, aurreko mentua txertatuko diogu.

Zergatik hori? Bada, sagar patxaka edo sagar basatia urte asko bizi den landare sendoa da, sustrai luze eta indartsuak dituena, eta, horri esker, urte asko bizitzen da

“ **Klima-aldaketa hemen da, eta hegazti migratzaileak haren eraginetara moldatzen ari dira** ”

(100 urte inguru edo gehiago). Baina, sagar patxakak fruitu oso txikiak eta garratzak ematen ditu, jateko interesatzen ez zaizkigunak. Beraz, sagar patxakaren oin indartsu hori baliatuko dugu jateko egokia den beste sagar barietate bat txertatzeko. Kontua da, sagar gozoak ematen dituzten sagarrondoak, sagar patxaka baino askoz ahulagoak direla, eta askoz urte gutxiago bizitzen direla. Txertaketarekin, bi gauzak ditugu: sustrai luzeko landare indartsu bat, urte asko biziko dena, eta, aldi berean, sagar gozoak emanen dituena.

Adar edo mentu txertaketa motak:

Txertaketaren gauzarik garrantzitsuenak elkartzen diren bi landareen izerdiak bat egitea da, alegia, oinetik izerdiak gora egiten duenean, goian txertatzen den landarera izerdia ongi iristea. Formaren arabera, mentu bidezko txertaketa mota desberdinak daude: azalekoa, zubierakoa, eskudetea, ezpala, ingelesa, omega (makinarekin egina), zaldiena, albokoa, arrakala edo txapa.



txertaketa egina, hiru mentu oin batean ▲



Bilboko historia ezagutzeko aukera izan dugu azkeneko bidaiari

Udaberrian sartu gara eta, ematen du, berriekin datorrela. Baina aurretik egindakoari helduko diegu. Joan den martxoaren 21ean Bilbon izan ginen. Lehenengo topagunea Guggenheimeko txakurra, Puppy ondoan, izan genuen.

Museoa ikusi ondoren eta inguruko ostatueta kafetxoa hartu ondoren, Bilbo ikustera abiatu ginen, bi autobusetan. Bakoitzean gida bana genuen, beraiek azaltzen ziguten bistan geneukanaren historia eta zergatia.

Artxandako menditik barna ere ibili ginen eta handik begiratu erraz ulertzen da, zergatik deitzen dute Bilbo "botxo". Bertakoentzat "botxo" zerbait ereiteko egiten den zuloa baita.

Ederki ikusi genuen garai batean burni meategia herri barnean zegoela, gaur egun Miribilla kirodegia kokatzen den tokian, baita Etxebarria altzairuen fabrika, 1990ean parke bihurtu zutena.

Burnia lurpetik erazteko eta eraldatzeko industriak langile asko behar zituen eta nola hurbiletik hala apartetik jendea etortzen hasi zen lan bila Bilbora. Etxe berriak nonahi eginez herria bete zuten, eta Bilbok handitzea egin zuen ondoko "elizaldeak" bereak eginez, Abando, Begoña, Deustu, gaur egun auzoak direnak. Biztanleria izugarri igo zen: 1800. urtean 12.000 ziren, 1900. urtean 83.000 eta gaur egun 344.000 biztanle ditu. Artxandatik begiratu, eraikuntza berrien dirdirak edertzen du Bilboko alde modernoa.

Autobusak aurrera egin zuen Begoñaraino, han jaitsi eta geldialdi bat egin genuen basilika ikusteko. Urteen joan etorrian hainbat kalte jasandako basilika dela esan ziguten gidek, batez ere guda karlistetan. Hain zuzen ere, inguruan zauritu zuten Zumalakarregi, eta, horren ondorioz hil egin zenez, gerra galtzea ekarri zien karlistei. Bilboko sarrera garrantzitsuena zen Begoña eta hori kontrolatu nahiak gudak sortzen zituen inguruan eta kalteak basilikan.



Areatzako parkean, atzean San Nikolas eliza dagoela. ▲



Sarrera horretatik jaitsi ginen Bilboko alde zaharrera, San Markos eliza ondotik pasa eta zazpi kaleak ikusiz Arriaga antzoki parean utzi genuen autobusa oinezkoa egiteko. Plaza berrira abiatu ginen gidari hango historiak entzun bitartean.

Areatzako parkean ere egon ginen, lehen hondartza modukoa zela kontatu ziguten, hortik izena. Gero udaletxe ondotik pasa eta puntual, ordu bietan, bazkaltzera.


Bazkari osasuntsua aukeratu zen, goxoa, ongi aurkeztua eta arina, digestio arazorik ez izateko modukoa. Arratsaldean, denbora libre genuenez, bakoitzak bere aldetik paseatzeko aukera izan zuen autobusa hartu baino lehen, etxera itzultzeko.

Bestetik, hauek dira apirilean egiteko asmoak: apirilaren 16an,

pentsioei buruzko hitzaldia, Larraintzarko bentan; apirilaren 20an, udaberriko festa, Berueten meza egingen dugu eta bazkaria, Mugiroko bentan; apirilaren 21etik 24a bitartean Leonera eta Zamorara bidaia; eta apirilaren 26an, "zahartze aktiboa" jardunaldia, Larraintzarko frontoian. Beraz, hilabete oparoa izanen dugu eta datorren alean kontaktuko dizuegu, ea hala joan den. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatuena Elkarte



▲ *Puppy loratua*



▲ *Begoñako basilikara sartu-atera egin ondoren.*



Txokolateroren etxea egokitzeko lanen esleipena, zabalik

Adinduen gune gisa egokitzeko lanak kontratatu nahi ditu Udalak, eta, horretarako, proiektuak aurkezteko epea zabaldu du, apirilaren 19a bitartean. Momentuz, beheko solairuko lanen proiektua aukeratzeko esleipena izanen da, eta, ondoren etorriko dira gainontzeko solairuenak.

Beheko solairuak 430 m² ditu, hainbat gelatan banatuta. Eguneko arretako zentro bilakatu nahi du udalak eta adineko pertsonen autonomia bultzatzeko gunea. Eguneko zentrorako tokia izateaz gain, autonomia bultzatzeko jarduerak egiteko gela bat eta jubiloteka bat izanen ditu, esleipenean ezarritako eskarien arabera. Gainera, sukaldea eta jantokia ere egin nahi dira, bertan bazkaldu nahi duten erabiltzaileendako eta adineko herritarrendako. Proiektuak izan behar dituen baldintzen artean, etorkizunean igogailua jartzeko tokia ere utzi behar da.

Beheko solairuko lan hauetarako, 200.000 euroko laguntza eskuratu du Basaburuko Udalak. Eta lehenengo fase honetan eginen diren egokitzapenak ezartzeaz gain, etorkizunean eginen direnak ere

aipatzen dira esleipen dokumentuan, izan ere, lehenengo eta bigarren solairuetan tutoretzapeko pisuak egiteko asmoa ere adierazten da.



Eskualdeko gazteak euren beharren alde lan egiteko antolatzen ari dira

Asanblada bat deitu zuten eta eskualdeko zerbitzu publikoekin eta gainontzeko taldeekin lanean aritzeko urratsak egin nahi dituzte. Itziar Olague Gazte Asanbladaren bultzatzaileetako bat da: "Gazte mugimendu bat sortzeko ideia nuen duela urtebete gutxi gorabehera. Otsail inguruan beste gazte bat jarri zen nirekin kontaktuan ideia horrekin berarekin, eta bion gogoak batuz urratsak egiten saiatu ginen. Lehenengo, gazteria biltzea izan zen, hitz egiteko".

Martxoaren 1ean deitu zuten lehenengo asanbladara eta bederatzi gazte bildu ziren: "harrerarekin pozik gaude, gero whatsappen difusio talde bat ere sortu genuen eta nahikoa jende batu zen, ea etorriko diren bileretan jende gehiago animatzen den". Bilera horren

helburua gazteek dituzten beharrak identifikatzea izan zen: "Ideia zaparrada bat egin genuen ikusteko zeintzuk diren gure nahiak eta beharrak eta zer baliabide dugun eskuragarri: udaletxeetan, gizarte zerbitzuetan, euskara zerbitzuan, kirol zerbitzuan... zer nahi dugun ikusi nahi genuen eta nola egin dezakegun ikustea zen helburua".

Asanbladan hainbat kezka edo behar atera ziren, besteak beste: etxebizitzarako sarbidean dituzten zailtasunak, aisialdian dituzte hutsuneak, eskualdeko gazteriaren arteko komunikazio falta. Horien inguruan hitz egiteko udalekin eta udal zerbitzuekin ere jarriko dira kontaktuan; eta Ultzamaldeko gazteak biltzeko afariak eta jarduerak egiteko asmoa ere azaldu dute.



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA



Ateztarrak, Euskal Herriko Mus Txapelketako finalean

Martxoaren 23an, larunbatarekin izan zen finala eta txapela Nafarroa Garaia etorri zen, baina ez gure eskualdera. Tafallako Carlos Gomezek eta Alberto Lizarrek eskuratu zuten, Eskoriatzako Jose Regaño eta Javier Eraña Kabijerturen kontra.

Baina, aipatu bezala, eskualdeko ordezkariak ere izan genuen, Euskal Herriko finalerako txartela lortu baitzuen, Aroztegiko kanporaketan, Oier Kañamaresek eta Mikel Iberok osatzen duten bikoteak. Altzainen (Zuberoa) izan da final hori, eta, osotara, Euskal Herriko 128 bikotek parte hartu dute.

Altzainen izan ziren sailkatuak martxoaren 9an jokatu ziren zazpi herrialdeetako finalerako atera ziren. Nafarroa Garaikoa Iruñean izan zen eta 32 sailkatu ziren, parte hartu zuten 136etatik. Tartean, Aroztegin txartela lortu zuten aipatu Kañamarek eta Ibero.

Orduan, Nafarroa Garaiko txapela Leitzara joan zen, Oihan Alduntzinek eta Andoni Zabaletak osatutako bikoteak irabazi baitzuen.

Euskal Herriko finalean, Nafarroa Garaiko 32 bikoteekin batera, Arabako 16, Bizkaiko 8 bikote, Behe Nafarroako 18 bikote, Gipuzkoatik 32 bikote, Lapurditik 14 bikote eta Zuberoatik 8 bikote sailkatu dira.

Nafarroa Garaian, gainera, osotara, 785 bikotek parte hartu dute Euskal Herriko Mus Txapelketan, 90 herri eta gunetan izan diren kanporaketetan.



Koadrilen eguneko desafioan izena emateko epea, zabalik

Ultzamaldeko gazteek antolatu zuten lehenengo aldiz joan zen urtean, eta jende pila bildu zuen. Horregatik, aurtien errepikatuko dute, eta hasi dira antolatzen dagoeneko. Data ere badugu, ekainaren 15ean egingen da Larraintzarko frontoian.

Ekimen nagusia herri kirol desafioa izanen da aurtien ere. Eta izena emateko epea zabalik da apirilaren 30era bitartean. Whatsappez egin daiteke 678 276 259 telefonora idatziz. Adi, plazak mugatuak baitira: talde bakoitzean hamar kidek parte hartu dezakete.

10 talde lehiatu ziren joan den urteko lehenengo edizioan, hau da, 110 pertsona bildu ziren desafioan. Gainera, frontoiko harmailak herritarrez bete ziren eta izugarriko giroa sortu zen.

Desafioa bukatuta, festa ere izan zuten Larraintzarren. Modestok jarri zuen musika bazkalostean, ondoren, The Piojos rockeroek; eta, bukatzeko, DJ Bakok. Aurtengo kartela ez da osatu oraindik.

ULTZAMALDEKO KUADRILEN EGUNA
HERRI KIROL
DESAFIOA

ARTOZAKIS	LANAK TRABAJO
ETXIKARTE	1 - 15 lokotzak / mazorcas
ERREZETAK	2 - 50/25 kg txingak / chingas
TXOKORAZING	3 - 40/20 kg zaku / sacco (x2 buelta)
MOKORDIS	4 - korrika / correr (x6 buelta)
YAGERMAIZTERRAK	5 - 3 mozketa harpana / corte tronza
XULATEZ	6 - 25 altxaldi ingude / alzado yunque
MORKOTX	7 - 1 mozketa aizkora / corte hacha

**SORTU ZURE TALDEA!
¡CREA TU EQUIPO!**

APUNTATZEKO EPEA: APIRIK 30 | PLAZO DE INSCRIPCIÓN: 30 DE ABRIL
 11 PARTAIDE TALDE BAKOITZAN | 11 PARTICIPANTES EN CADA EQUIPO
 PLAZA MUGATUAK! | PLAZAS LIMITADAS!

APUNTATZEKO
 PARA INFORMARTE: 678 276 259

EKAINAK 15 DE JUNIO
FRONTÓN DE LARRAINTZAR-KO FRONTOIAN



Ultzamaldeko III. Goxoa Txapelketa hasi da


Ultzamaldeko Goxoa txapelketan lehen mailako zazpi bikotek eta bigarren mailako sei bikotek eman dute izena, bere hirugarren edizioan. Hein handi batean Ultzamaldea osatzen duten bailaretako pilotariak izanen diren arren, badira hemendik kanpotik datozen beste hainbat ere. Txapelketa ireki eta erakargarri den seinale.

BIGARREN MAILA	LEHEN MAILA
ETXEBERRIA - GOMEZ	MURGIENDO - XABI
ANCIZU - ANTOLIN	ARBILLA - GARCIA
DORAI - IRIARTE	ANDUEZA - GORRITI
BERASAIN - HUARTE	RETEGI ANAIK
DIEZ DE ULZURRUN - ZULAIKA	OSKOZ - IRURITA
GUELBENTZU ANAIK	BARBAJERO - LEGARRA
	BEREAU - ALMANDOZ

Txapelketak bi fase izanen ditu, batetik final laurdenetako ligaxka eta bestetik fase finala. Lehen fasean bikoteak bi taldetan banatuko dira, eta guztiek guztien aurka jokatuko dute lehen postuarengatik, final aurreko txartela lortzeko asmoz. Ondoren, lehen aldiz, "play off" bat egingo da, eta bertan lehenengo taldeo bigarrenak beste taldeko hirugarrenaren aurka jokatuko du final-aurrekoetako beste tokiaren bila. Bigarren fasea, kanporaketa zuzeneko finalaurrekoaz eta txapelketaren finalaz osatua egongo da.

Apirilaren lehen astean abiatu da eta, dena ongi bidean, finala maiatzaren 17an izanen da arratsaldeko 17:30ean, bigarren mailako finalarekin hasiz. Gainera, besteetan ez bezala, oraingoan Auzako herrian jokatuko da hasieratik bukaerara.

Txapelketaren saria Ultzamaldeko jatetxe batean bi pertsonarendako otordua izanen da.



Carrefour
express

Zugandik gertuago

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA


CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Izen ematea bikoiztu da emakumezkoen frontenis txapelketan

Ultzamaldeko frontenis txapelketan lehen mailako sei bikotek eta bigarren mailako beste 10 bikotek eman dute izena, bere hirugarren edizioan. Aurreko urtearekin konparatuz gorakada nabarmena izan dugu urte honetako izen ematean. Gogoekin iritsi dira Ultzamaldeko neskak, frontenis txapelketa jokatzera!

Txapelketa osoa Anue bailarako Olague herrian jokatu da, bi fasetan. Batetik, final laurdenetako ligaxka, eta, bestetik, fase finala. Lehen fasean bikoteak bi taldetan banatu dira eta guztiek guztien aurka jokatu dute lehen postuarengatik, finalaurrerako txartela bermatzeko asmoz. Ondoren, lehen aldiz, "play off" bat egingen da, bertan lehenengo taldeko bigarrenak beste taldeko hirugarrenaren aurka jokatu du final aurrekoetako beste postuaren bila. Bigarren fasea, kanporaketa zuzeneko finalaurrekoak eta txapelketaren finalak osatuko dute.

Apirilaren lehen astean eman zaio hasiera eta, dena joan behar den bezala badoa, finala maiatzaren 24an izanen da arratsaldeko 17:30ean, bigarren mailako finalarekin hasiz.

Txapelketaren saria Ultzamaldeko jatetxe batean bi pertsonarendako otordua izanen da.



LEHEN MAILA	BIGARREN MAILA
CIGANDA - GUBIA	IRIBARREN - GARRIDO
VILLANUEVA - GOIKOETXEA	LEGAZ - VELASCO
PICABEA - ZUBIETA	ALTXU - MUGUIRO
LARRETXEA - HUARRIZ	MARTIN - ALEMAN
TORNERO - BEUNZA	MARTURET - OLAGUE
ORRIO - ORRIO	BARBARIN - DAGUERRE
	IRAIZOZ - DORREGARAY
	MARIÑELARENA - URDANIZ
	OSKOZ - LARRAINZAR
	IRIBARREN - ERICE



Ultzamaldeko kirol zerbitzua

238. Pulunpe alean, 20 eta 21. orrialdeetan argitaratutako Eltzaburuko maisu izendatzea artikulua sinatu gabe atera zen. Lourdes Iraizotz da artikulua horren egilea. Barkamenak Lourdes Iraizotzi akats honengatik.



Euskarak kalea behar du! Euskaldunok kalea hartu behar dugu!

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Harrotze astea antolatu zuen, eta ekimenaren harira, iritzi artikulu hau idatzi du taldeko Sugoï Etxarri Zabaletak.

Aurreko egunean, lan egiten dudan institutuan ikasle batek botu zidan: "hamar pertsona bagaude eta batek euskaraz ez badaki, logikoa eta errespetuzkoa da gazteleraz hitz egitea". Hitz-kate horren eta botu duen pertsonaren atzean, banan banan aztertu ezin diren hamaika bizipen zehatz daude: eguneroko elkarrizketak, diskurtsoak, gertaerak, irudiak, bideoak... Eta horietan barna nagusitu den logika bat antzeman daiteke, mundua gobernatzeko duen logika indibidualista eta sasi-bakezalea, alegia.

Euskal Herrian (ere) agintzen duen logika horrek berak ezkututzen ditu bi pertsonaren edo gehiagoren artean dauden botere-harremanak; klaseak, sexu-generoak, jatorriak, azal-koloreak, hizkuntzak eta abarrek eragindakoak. Horrela, denok askeak eta boterez berdinak bagina bezala pentsatzera eramane gaituzte, gure bizipen eta ekintzen kausa zein ondorio sistemikoak ezkutatu, ikusezin bihurtuz. Nik euskaraz edo gazteleraz egin, zer axola du? Aske naiz nahi dudana egiteko. Gainera, ez dadila inor gaizki sentitu, ez dezagun inor gaizki sentiarazi. Errespeta

dezagun dena, bakoitzak egin dezala nahi duena, bakeak asko balio du...

Pentsamolde honek, bistan da, gure arteko egiturazko botere-harremanak ezkutuan uzten ditu eta itxurazko bakea ezartzen du, noski, zapaltzailearen mesedetan eta zapalduaren kaltetan. Aipatutako ikasle horri honela itzuli nion galdera: "Eta hori egiten badugu erdaldun bat dagoen guztietan, zenbatetan ahalko dugu geure hizkuntzan, euskaraz, hitz egin?". Segundu batzuetako isiltasuna sortu zen eta beste ikasle batek horrela erantzun zidan: "Bai, baina orduan, mundu guztiak euskaraz ikasi beharko luke eta hori lortzea oso zaila da...". Ttak, hasi ziren maila kolektiboan pentsatzen, baina jakina, egiturazkoa dena aldatzea zaila da, zailegia indibidualismoz inguratuta hazi den norbaitentzako.

Azken urtetan gero eta gehiago, ikasleek euskara eskolarekin eta arauarekin lotzen duten irudipena dut, eta erdara, kontrara, dibertsioarekin eta askatasunarekin. Urte luzetako borrokaren ondorioz euskara neurri (txiki) batean instituzionalizatzea lortu dugun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dugu,

baina gutxi hitz egiten da horri buruz, eskoletan, etxeetan zein kalean. Errealitate gordin hori izkutuan geratu da, indibidualismoaren eta sasi-bakearen araupean. Izan ere, Arestik zion bezala, bakeak euskarari -eta edozein talde zanpaturi- kalte egiten dio.

Errealitateak, sarritan, begiratu hutsarekin ez dira ikusten, baina seinalatuz gero bai.

Horregatik, nire ustez, horixe dagokigu orain; hitz gutxitan esanda, nagusitzen den maila instituzionaleko borrokari uko egin gabe, kalea berreskuratu behar dugu; lehenak bigarrena apaltzeko izaten duen joera gaituzte. Eskubide indibidualen lanketatik eta hitz neurtuetatik haratago, herri gisa ditugun ametssez, etsaiez eta askatasun kolektiboetarako bidez hitz egiteko premia dugu. Egunerokoan "normaltasun" gisa bizi ditugun egoerak desnormalizatu eta kaleak astintzeko. Eta kale horietan, behekoen askatasuna nahi duten beste mugimendu batzuekin topo egin eta indarrak batzeko.

Bizitza, hizkuntzak, herriak eta errentagarri ez zaion guztia suntsitzen dituen sistema honen eta bera iraunarazten duten Estatuaren aurrean, gure artean bereizi eta isolatzen gaituztenen aurrean, itxaropena kendu nahi digutenen aurrean... komunitatea lantzea da mugimendu askatzaile guztion premia bizia.





Ezpelaren gisa, euskararen tokia berreskuratzeko sortu da

Euskararen egoerarekin kezkatuta, herritar talde bat biltzen hasi da. Euskararen ezagutza zabaldu den arren, atxikimenduan eta erabileran atzerakada izan dela salatzen dute. Horregatik, kezka partekatuz, euskaltzaleen saretzea eta ahalduntzea bultzatu nahi dute. Baita kontzientzia piztea eta aldarrikatzea ere. Maiatzean egingen dute beren lehenengo ekimena: Larraintzarren D eredia aukeratu zuten lehenengoei omenaldia.

Taldeko kideak diren Basaburuko Aitor Arangoarekin eta Goizargi Santxo ateztarrarekin bildu gara. Baina Imozko Alazne Fernandez de Muniain eta Juan Aleman, Lanzko Luis Mariñelarena, Ultzamako Itziar Mariezkurrena eta Edilberto Goldaraz, eta Basaburuko Leontzio Uharte dira taldea osatzen duten kideetako beste batzuk. Besoak zabal-zabalik dituzte sartu nahi duenarendako. Hilean behin biltzen dira, larunbat goiz batez. Goizargi Santxo: "Niri iruditzen zait oso talde anitza garela, adinarengatik, bakoitzaren bizipenengatik, euskara nola jaso dugunaren arabera, talde aberatsa gara". Aitor Arangoa: "Aurreneko gauza, ikuspegia konpartitu, norberak

bere inguruan zer ikusten zuen partekatzea, nola ikusten genuen euskararen egoera, hortik hasi ginen, eta jendea gogoz gelditu zen segitzeko".

Zer helburu duzue?

Goizargi Santxo: Euskaltzaleak gara eta, bakoitza bere esparruan, beti saiatzen gara alde batetik edo bestetik zerbait egiten. Badago tristura, amorrua, kezka, egoera den bezala delako. Alde batetik, hori ikustarazteko eta kezka pizteko biltzen gara. Izan ere, umeez erdaraz egiten diete gurasoei eta inor ez da kezkatzen. Kontzientzia piztea eta eragitea. Guk kanpotik ikusi, egoera nolakoa

den behatu, geratu eta galdetzea, zer gertatzen da? Eta, zergatik? Zer egin dezakegu? Bada, honi deitu edo hau egin edo beste hori sortu edo eskutitz bat idatzi... eragin.

Bestetik, iruditzen zait, saretzea edo ahalduntzea. Oso gogorra da euskalduna izatea eta beti borrokan ibili behar izatea. Niretzat terapia bat da taldera joatea eta hitz egitea, horrela ez naiz arraro edo bakarrik sentitzen. Nolabait, militantzia horretan arnasa hartzeko espazio bat izatea, borroka horretan, etxeko borrokan edo herrikoan, bakarrik ez sentitzea.

Gero, aldarrikatzearena. Nik uste dut aldarrikatu egin beharra dagoela, noski. Batetik, omenaldi bat egiten dugula edo ekitaldi bat, ongi; baina, bestetik, administrazioa joan eta esatea: "ea, zer gertatzen da umeendako ez dakit zer jardueratan? Euskaraz eskaintzen dira, bai, baina euskaraz egiten dira?". Hor gainean egon, behatzen eta taldeak ematen dizun babes horrekin. Eta, ez, askotan gertatzen den bezala. Adibidez, Iñigok futboleko zer gertatzen zen galdetzeko deitu zuen... baina ez da berdina ume baten aita gisa deitzea edo Ezpela Euskara Talde gisa. Eta ez bakarrik aldarrikatu, gero ere proposatu. Administrazioak, udalek, batzuetan laguntza behar dute.



Ezk-esk, goitik behera. Juan Aleman, Luis Mariñelarena, Itziar Mariezkurrena, Alazen Fdez de Muniain, Aitor Arangoa eta Leontzio Uharte



Adibidez, begiraleei ikastaro bat emanaz. Edo gu taldean protokolo bat adostu eta laguntza hori eskaini. Gu ez gara salbatzaileak baina makulu bat izan gaitezke.

Nola ikusten duzue egoera eskualdean eta orokorrean?

Aitor Arangoa: Eskualde mailan egoera oso ezberdina da leku batetik bestera. Baina inor engainatu gabe, ustez hobekien dagoen lekuetan ere nahiko egoera txarra dela esanen nuke. Askotan aipatzen da Basaburua arnagunea eta leku berezia dela, baina hori ez da errealitatea, inondik inora ere. Basaburuko herri euskaldunetan ere, azkeneko 20 bat urteetan, sekulako atzerakada sumatzen dut. Batez ere jende gazteak oso-oso euskara gutxi erabiltzen duelako. Bestetik, onerako, gaur egun ezagutza maila asko handitu da gazteen artean eta kontrako jarrera gogorrik ere, garai baten adinakoa, ez da. Bi alde horiek ikusten ditut.

G. S.: Kontrako jarrera horiek apaldu direla iruditzen zait, lausotu direla baina askotan gertatzen da umeez erdaraz egitea, baita helduoi ere. Izan ere, kontrako jarrerak badaude baina D eredura doaz, beste hizkuntza bat eta besterik ez dagoelako,

eta autobusa etxe aurreraino iristen delako... orduan lehengo D ereduko gurasoen ilusioa edo intentzionalitate hori igual ez dago. Gainera, ez duzu lehen bezala adituko: "benga euskaraz...". Gaur egungo hezkuntza beste modukoa baita, beste askatasun bat ematen zaielako umeei, erabaki dezaten. Baina erabakia ez da errealia erdarak jaten gaituelako. Ume bati telebistan edo aldizkarietan agertzen den arropa aukeratzeko ez zaion bezala, hizkuntzaren kasuan ere aukera ez da errealia. Ez baikara libre, baldintzatuta gaude.

A. A.: Gure taldean askotan atera da gogoeta, euskal eredura eramate hutsarekin ez direla bermatzen euskal hiztun aktiboak, ez aktiboak ezta kapazak ere, gabezi ikaragarria baitago euskara mailan eta euskara mailak berak ekartzen du erabiltzeak. Gurrpil zoro bat da, ez duzu behar den bezala ikasten eta ikasten ez duzunez ez zara gai sentitzen hori erabiltzeko, orduan beti beste hizkuntza batera joko duzu, erosotasun gehiago baduzu.

Eta zer analisi egiten duzue, zein da zuen ustez arazo nagusia?

A. A.: Arazoak pila bat dira. Batzuk buruan ditugu eta beste batzuk, ziur aski, ihes egingen digute. Bat, kontzientzia maila. Inolako kezkarik gabe bizi gara, baloratu gabe daukaguna, eta nik uste dut, mundu globalizatu honetan, sekulako altxor bat dela euskaldun izatea. Munduko beste edozein lekutako biztanleen eredu bat bihurtzen ari gara: kontsumitzen ditugun produktuetan, musikan, kulturaren, lanetan, denetan. Ez dago inolako mugimendurik, garai batean askoz ere indartsuago izan zena.

G. S.: Ez dago atxikimendu eta militantzia hori. Gazteen

“ **Goizargi Santxo:**
Bidart anaiek
esaten zuten bezala:
“Euskara ez dute
bestek salbatuko,
guk salbatuko dugu ”

erreferente euskaldun eta modernoak behar ditugu. Kulturgintza lanean ari da baina muturra hor sartzea oso kontzientea izan behar da, kontzientzia handikoa izan behar zara bestela besteak jaten zaituelako. Jendearengana ez da Neomak iristen. Beti zirrikitu bila ibili behar da, lan bat da.

A. A.: D ereduan ditugu haurrak matrikulatuta eta, orduan, dena eginga dagoela pentsatzen dugu. Lana eginga dago. Ez gara ohartzen asko kosta den hori eginga dagoela baina hori errazena dela, gero hortik aurrera da lana. Hori elikatu beharra da egunero-egunero. Baina oso negatibo jarri gabe (barreak) esan beharra dago gure eskuetan dagoela dena. Gure eskuetan dago galtzea, baina honi eustea ere, eta ikaragarritzko pozaz bizi zena ere. Hau ez da gauza ilun eta tristea.

G. S.: Eta horregatik elkartu gara, eutsi nahi diogulako. Sinesten dugulako gaude hemen. Hau ez dago galduta. Bidart anaiek esaten zuten bezala: "Eskuetan har dezagun gure egoera... Euskara ez dute bestek salbatuko, guk salbatuko dugu".

Maiatzaren 4an egingen dute lehenengo ekimena, D eredu hautatu zuten lehenengo familiei omenaldia; eta, inkesta bat ere zabaldu nahi dute gurasoen artean.



▲ Aitor Arangoa eta Goizargi Santxo



Erasoarrak Korrikaren zain



Jose Arriaga eta Paula Ziganda, Atezko alkatea, Korrikaren zain



Txalapartarekin egin zioten harrera Korrikari, Lizason



Unax eta Ihintza, Madaliren iloba eta haren semea, Hernanitik etorri ziren



Ateztarrak korrikaren zain



Lekeitiotik, Elgoibartik, Mendarotik, Itziarretik eta Ermuatik etorritako pilotarien bisita Imotz eta Basaburuan



Erdaldun berrien kluba antzezlanari, Aizarotzen. Korrika kulturalaren egitarauko ekimena



Hainbat herritar hurbildu ziren Bizkarsoro filma ikustera Erasora



Iosu Izaguirre Sextet Mingus Moodsen jazz kontzertu ederra, Latasako Biltzean



Etulaingo ihoteak



Landa eremuan praktikak egiteko aukera

Hustutze arriskuan dauden zonaldeak bultzatu nahi dituen programa da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Sustraiak programa. Nafarroako Gobernuarekin batera jarri zuten martxan eta aurtun laugarren edizioa aurkeztu dute.

Despopulazioaren aurkako programa izan nahi du Sustraiak; eta, NUPeko garatu du Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan. Horregatik, praktikak despopulatzeko arriskuan dauden Nafarroako udalerrietan egiteko aukera ematen du, Nafarroako lurraldeen arteko oreka berreskuratzen laguntzeko xedez.

Martin Larraza Kintana, NUPeko Kalitateko, Ekonomiako eta Estrategiako errektoreordea da, eta bere hitzetan, "Bi ekarpen nagusi egiten ditu: alde batetik, ezagutza zabaltzen du; "Erasmus rural" izenez ezagutzen da, eta herrietatik edo landa eremutik kanpo bizi diren gazteak landa eremu horietara eramaten ditu, ikus dezaten hor ere aukerak egon daitezkeela, lanerako edo bizia eta karrera garatzeko; bigarrena, hustutze arriskuan dauden landa eremu horietako jarduerak eta zonaldeko sozioekonomia bultzatzen ditu". Eta, bide batez, bertan bizi eta lan egin nahi duten gazteen aukerak zabaltzea ere du helburu.

Aragoitik, gure eskualdera

Martin Larraza Kintanak azaldu digunez, programa Aragoien sortu zen: "Programa hau Aragoien martxan zegoen eta guk Zaragozako

Unibertsitatearekin elkarlanean aritzen garenez ezagutu genuen. Hemen ere abiatzeko Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri ginen duela lau urte eta oso ideia interesgarria iruditu zitzairen, eta hortik etorri dira hurrengo urteetako edizio hauek".

Aragoien sortutako programa Nafarroan ere martxan jarri dute, beraz, eta, gure eskualdean ere, parte hartzen duten enpresak ditugu: Iraizotzen, Goshua enpresa; Oskotzen, Planet Energy, berriztagarrien arloan lan egiten duen enpresa; eta, Lizason ere, Ultzamako baserri eskola. Larraza: "Orokorrean enpresa txikiak izaten dira, beste kasu batzuetan udalek ere parte hartzen dute, esate baterako, turismoa bultzatzeko edo ikerketak egiteko; eskualde honetan enpresak izan dira, eta, eskatutako profila, giza zientziekin lotutako pertsonak izan



▲ David Crespo, 2022an Sustraiak parte hartu zuen, Otxagabian zentro etniko-kultural bat osatzen

dira, Ultzamako baserri eskolan, adibidez, baserri eskolak egiten duen gizarteratze lanarekin lotuta; baina beste kasu batzuetan profil teknikoak behar dira, aipatu Planet Energy enpresan, esate baterako".

Gure eskualdea, hustutze arriskuan

Derrigorrez bete behar den baldintza da enpresa edo erakundea arriskuan dagoen herri batean kokatuta egotea. Nafarroako Gobernuak sei arrisku mailatan banatzen ditu erkidegoko udalerriak. Nafarroan 182 herri daude hustutze arriskuan, 1. eta 6. mailen artean; eta 90ek ez dute arriskurik. Gure eskualdeko herri guztiak daude lehenengo eta seigarren arrisku maila horretan. Gehienak, bigarren mailan (Atetz, Basaburua, Imotz eta Lantz); arrisku txikienean, Odieta eta Ultzama, seigarren mailan; eta, beste muturrean, Anue, hustutze arrisku oso larrian baitago, lehenengo mailan.

Hain zuzen ere, Lurralde Kohesiorako kontseilari Oscar Chivitek programaren aurkezpenean azpimarratu zuen moduan: "Despopulazioaren aurkako borroka da Nafarroako Gobernuak, orokorrean, eta Lurralde Kohesiorako Departamentuak, zehazki, aurrean duen desfiorik nagusietakoa. Erronka demografikoa aukera bat da gure landa eremua berpizteko eta garapen jasangarriago eta parekideago baten oinarriak ezartzeko".



Baldintzak

Horrela, arriskuan dagoen eremu horietako batean kokatuta egon behar dira enpresa eta erakundeak; eta 250 langile baino gutxiagokoak izan behar dira. Gainera, trebakuntza eskaini behar dute, Martin Larraza, NUP: "Enpresek eta erakundeek prestakuntza plan bat eskaini behar dute, gutxienero iraupen batekin (300 eta 450 orduko) eta baldintza batzuk bete. Orduan, enpresek eta erakundeek eskaria egiten dute; ondoren, ikasleek izena ematen dute, eta haien gustukoak edo haiendako egokiak diren praktikak aukeratzeko dituzte; ondoren egiten da esleitze prozesua edo hautaketa".

Ikasleei dagokienez, NUPen gradu, master edo truke programa batean matrikulatuta egon behar dira; eta, horrela ez bada, beste

Tipoa	Deskripzioa	Udalerrri Kopurua	Osotara
1	Muturreko arriskuan	76	174
2	Arrisku handian	31	
3	Arrisku nabarmenean	40	
4	Gainbehera handian	9	
5	Gainbehera moderatuan	18	98
6	Egoera ahulean	8	
	Arriskurik gabekoak	90	

unibertsitate bateko titulua eskuan izan behar da, eta Talent UPNA Nafarroako Unibertsitateko diplomari matrikulatu behar da.



► Informazio gehiago NUPeko weborrian

Zenbait datu:

Ekimenak 360.550 euro jaso ditu lau edizio hauetan

Parte hartu duten 44 ikasleetatik 12k sinatu dute kontratu bat

2023ko errenta aitortzeko kanpaina

ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ
2024

Internet bidez, telefonoz, banketxean edo aholkularitzan. Aurten ere, egin **ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ!**



Orokietako Martin Perurena Beltza, Basaburuko taxilari berria

Urteak dira Basaburuko Udala bailararako taxi zerbitzua martxan jartzeko saiakerak egiten ari zela. Bada, apirilaren 8tik aurrera martxan izanen da zerbitzu berria. Martin Perurena Beltza orokietarra izanen da gidaria. Eskolako garraioaren zati bat bere gain hartzeaz gain, astez taxi zerbitzua eskainiko du; asteburuetan, aurrez eskatuta

Nola sortu da taxi gidari izateko aukera?

Bizpahiru urte zeramatzaten Udaletik zerbitzua martxan jarri nahian, Esther Lakasta alkate zenean hasi ziren kontu honekin. Kontua da inor ez zela animatzen plaza horretarako aurkeztera. Behin baino gehiagotan atera zuten postua, baina ezer ez. Orduan, Etxegia alkateak aipatu zidan ea hasi nahi nuen. Hasieran

ez nituen baldintzak betetzen, euskara ez baitut hitz egiten. Baina, beste inor aurkezten ez zela ikusita, azkenean, lehiaketako baldintzak aldatu zituzten. Ni bakarrik aurkeztu naiz, eta beraz, plaza niretzat izan da. Baina, argi utzi nahi nuke, beste edonor animatuko balitz ni erditik kenduko nintzatekeela, ez diot inori lanik kendu nahi. Nik hau zerbitzu bat emateagatik egiten dut, laguntzeagatik.

Zer esan nahi du eskualdeko taxilari izateak, dirulaguntzarik izan duzu?

Ez, dena nik ordaindu dut: lizentzia, autonomoetan alta ematea... Udalak 'zerbitzu' deritzonak eskaintzen ditu, hori bai: batxilergoko ikasle gazteak autobusetara jaistea da udalak eskaintzen duena, hori berak ordaintzen du, eta eskualdeko taxiari ematen diote lan hori. Eskolei lotutako beste zerbitzu batzuk



Martin Perurena orokietarra izanen da taxilari ▲



Hezkuntza Departamendutik bideratzen dituzte, eta lan horiek edozein taxiri ematen dizkiote. Gurean, Berueteko Martin Jose aritzen da horretan. Hemendik aurrera, bion artean eginen dugu, berak zati bat eta nik bestea.

Lizentziak lortzea, baimenak eskatzea... prozesu luzea izanen da, ezta?

Bai, autoaren baimenak lortzea izan da errazena, bizpahiru astetan lortu ditut. Baina, administrazioan bete beharreko paperak eta lortu beharreko baimenak asko luzatzen dira. Kontu honekin zenbait hilabete badaramatzagu: IATA pasa, handik Trafiko Zuzendaritzara joan, handik Garraio Departamendura... eskoletako garraioa egiteko Hezkuntza Departamendura ere jo beharra dago, eta prozedura luzeagoa da. Baina, tira, dokumentazioa jadanik Trafiko Zuzendaritzan da, eta esan didate

'zerbitzu publiko' izaera emanen didatela; beraz, sarri hasiko naiz lanean.

Berria da zuretzat lan hau. Zergatik animatu zinen postuan aurkeztera?

Pertsona oso mugitua naiz ni, gustatzen zait etengabe gauza berriak ikasten eta egiten aritzea. Lan honetatik gehien interesatzen zaidana da eguneko zentroa martxan jartzen denean adineko jendeari zerbitzua eskaintzea. Aitona edo amona bat bere etxean jaso, eta zentrorra eramatea, beste jendearekin elkar dadin. Eta, horrez gain, beste ideia batzuk ere baditugu buruan: ikusi berri dut, adibidez, Erronkarin bertako taxilariak adineko jendeari etxera botikak eta horrelakoak eramateko zerbitzua eskaintzen duela, udalak lagunduta. Ikusiko dugu, agian hemen horrelakorik ere martxan jartzeko aukera izan genezake aurrerago.

Eta lan honetatik beldur pixka bat ematen dizun zer edo zer badago?

Bai, seme-alabekin goizetan ezin egotea zen nire kezka nagusia, baina dagoeneko moldatu dut kontu hori. Hezkuntza departamenduko garraioarena eta udalarena hartzeak, goiz osoa etxetik kanpo pasatzea eskatzen zuen. Baina, nola azkenean nik Udalaren zatia eginen dudan eta Martin Josek Hezkuntza Departamenduarena, horrela moldatu gara. Nik batxilergokoak eramane ditut autobusetara, goizeko 6:30etik aurrera, eta, besteak, txikiak, berak eginen ditu.

Zenbat plazako autoa duzu?

Bost plazatakoa da, duela gutxi erosi nuen auto elektrikoa da. Egia da inbertsioa eskatu duela, baina tira.



ESKAINIKO DUEN ZERBITZUA: Astelehenetik ostiralera, batxilergoko ikasleei zerbitzua emateaz gain, ohiko taxilari zerbitzua ere emanen du Perurenak. Asteburuetan, berriz, aurrez eskatuta emanen du taxi zerbitzua. "Asteburuetan, gutxienez, aurreko egunean abisatu beharko dute taxi zerbitzua nahi dutenek. Modu horretan, nik nire burua antolatzeko tarte behintzat izanen dut"

Telefono zenbakia:
621 12 69 94



Ilarregiarra hil zuten

Aurten 100 urte. Ehun urte irailean, Berueteko lapurrek egindako krimen izugarriak. Horregatik idatziko dugu Pulunpen luze eta zabal krimen izugarri hartaz. Gaur sarrera emanen diogu.

Urak nahasi samar Berueten 1924an

1924ko maiatzaren 11n izan zuten haserrea Miguel Angel eta Carlos Azpiroz Gaztelu anaiek, **Errandoneko** eta **Plazeneko** nagusiek, 65 eta 60 urtekoak, Bernardo eta Jose Goñi Lazkano anaiekin, 27 eta 20 urtekoekin. Azken hauek **Txibarneko** semeak, zaharrena ordurako **Idiagan** ezkondua.

Hori dena, Marcos Garroren ostatuan izan zen, **Garaikoan**.

Marcos Garro koinatua zuten Goñitarrek.

Azpiroztarrak Goñitarren aitaren kontra gaizki esaka eta horretatik sortu zen haserrea. Irainen artean plater bat eta txarro bat airean Goñi anaiei kontra.

Gero elkarri heldu eta borrokan joka hasi baino lehen jendeak bereizi zituen. Ez zen, dirudienez gehiagorik suertatu, baina Goñi anaiek ez eze, hauen aita ere Berueteko ezinegonaren tarteko zen. Argi ikusten da hemen!

Basaburuko epaitegian izan zen judizioa eta Azpirotz anaiek kondenatu zituzten: Carlosek 25 pezetako isuna ordainduko zuen eta Miguel Angelek 7 eguneko atxiloketa izanen zuen.

Goñitarrek libre atera ziren.

Eta ekainean kontuak latzagoak izan ziren

Izua erein dezake familia bakar batek herri osoan? Hori genuen entzuna, **Txibarneko** Goñi Lazkanotarrak ikararia sortu zutela. Hori nuen entzuna, besterik gabe, deus gehiago ez nekien.

Baina egunkariak ikusterakoan, hara zer topatu nuen Diario de Navarran, 1924ko ekainekoan: Berueten, Korpus egunean, ekainaren 19an, tiro soinutan ibili zirela. Harrigarria badirudi ere Korpus egun sakratuan izan zen, bai! Eta **Peruskeneko** Bernardino Urtxipia Garro eta **Txibarneko** Juan Martin Goñi Lazkano ziren ikaratzeko moduko eskandalua sortu zutenak. Lehenak, elizari balaz tiro egin eta luzeran aldez beste pasatu zuen, zauriturik inor utzi gabe zorionez! Juan Martin Goñik, bestalde, prozesioa

◀ *Hemen Berueteko eliza. Bernardino Urtxipiak elizako leiho honetatik sartu ote zuen bala? Edo beste aldeko leihoren batetik? Nahiz Judizioan zehatz jarri ez, Arrarasko berri emaleak nik uste egia jarri zuela egunkarian.*





Txibarneko paretik pasatzean edo, honek ere balaz, tiro egin zuen.

Diarioak dio herriak denuntziatu eta Guardia Zibila etorri zela herrira. Ordurako Bernardino Urtxipia, 22 urtekoa, familia maitatua eta bikainekoa zenak, herritik alde egin zuela atzerrira joateko asmoz; alde batetik lotsa harturik eta bestetik aitaren errieta gogorraren ondoren. Hamaika senideetan zaharrena zen (22 urte eta 2 hilabete artekoak)

Juan Martinek 24 urte zituen, eta 8 senideetako hirugarrena zen.

Ez dakit beste deus esan behar denik, herrian nolakoa zen giroa antzemateko. Gaingiturik zebiltzan dirudienez Goñi Lazkanotarrak. Eta, hala ere, lagunak opatzen zituzten.

Hori da egunkariak dioena, baina ekainaren 26an Basaburuko epaitegian izan ziren judizioak eta beste xehetasunik badakar. Juan Martin Goñi Lazkanoren kontrako salaketa Lekunberriko Guardia Zibilen buruak jarri zuen eta Bernardino Urtxipiaren kontra, berriz, Jose Navarrok, herriko postariak eta lapurren etxean berean, beste bizitza batean bizi zenak.

Diferentzia handiena honako hau da: Juan Martin Goñik **Txaseneko** leiho batetik egin zuela tiro eta ez **Txibarnetik**. Eta **Txaseneko** nagusia zen Martin Erasun Gortarirena zela eskopeta. Hau biei bosna pezetako isuna jarri zitzaien eta Judizioko kostua. Bestalde, eskopeta konfiskatu zioten Martin Erasuni.

Bernardinoren kontrako salaketa gogorragoa zen dudarik gabe, eta horrengatik, Iruñeko Epaitegira bidali zuten Jose Navarrok jarritako salaketa. Iruñeko epaileak salaketa ikusi eta atzera itzuli zuen Basaburuko epaileak

juduzatzeko, egindakoan "delitu" ezaugarririk ez zegoela eta; "falta" bat zela egindakoa. Eta faltak juzgatzea Basaburuko Epaitegiari zegokion.

Eta Basaburuan, ekainaren 26an juzgatu zuten. Bernardino Urtxipiak nondik egin zuen tiro ez du jartzen, ez eta zeren kontra egin zuen ere, garbi: tiroa leku publiko eta jendea maiz ibiltzen denean egin zuela. Horixe, lauso, lauso!

Bost pezetako isuna jarri zioten eta judizioko kostuak (Eta egunkariak zekarren Atzerrirako bidaia!? Borden batean egon izanen zen ezkutatua!)

Hainbesteko eskandalua izan zena deus gutxitan gelditu zen. Hemen gauzak leuntze aldera egin zutela garbi dago. Urtxipia familiaren onberatasuna erabakigarria izan zen.

Kontuak kontu, baina eskopetekin tiroka dabilenak izua hedatzen du gero! Eta zer esanik ez, beruetear bati baino gehiagori entzundakoa gehitzen badiogu:

-Goñitarrak nai zutena iñez zailtzeken!

1924an lontzako bidea egin zuten. Baina bazen besterik ere!

1924garren urtean **lontzako** bidea egin zuen herriak, edo hobeki esan, Leitzako kontratista zen Sagastibeltzak. Karretera oso inportantea Beruetekeo mendi gaitzetara kamioiez hurbiltzeko.

Langileak, ostatur, Txokolateroren etxean (**Juantzarnean**) izan eta jantoki honetan lan handia izan zuten uda hartan guzian. Karreterako lanak bukatzean, Tiburcio Zubiri eta Nieves Lanpreabe nagusi-etxeakoandreak, beren hiru alabei eskertu nahi eta egun osoko jai eman zieten. Auto eder bat errentan hartu eta beren

PLANTAS DE HORTALIZAS

Remito en buenas condiciones

Vicente Huici

Rochapea. 39. Teléfono 525 bis

Gacetilla

La guardia civil de Lecumberrí al personarse en el pueblo de Beruete para averiguar quién fué el individuo que el día del Corpus disparó un tiro cuyo proyectil atravesó a lo largo del templo parroquial, sin causar de milagro desgracias, pudo comprobar que el autor del disparo fué el joven Bernardino Urtxipia Garro, de 20 años, el cual, avergonzado de la responsabilidad en que había incurrido, y de la severa reprimenda que le echó su padre, persona honradísima que goza de la mayor estimación del vecindario, se había ausentado de su casa con el decidido propósito de trasladarse al Extranjero, donde tal vez se halle ya.

También averiguó la guardia civil que otro vecino de dicho pueblo llamado Juan Martín Goñi y Lazcano, hizo otro disparo de escopeta y con proyectil, desde la ventana de su casa, al paso de la procesión, sin que ocurrieran desgracias.

Contra ambos se ha formulado ante el Juzgado las correspondientes denuncias.

Inmenso surtido de toda clase de calzados a precios inverosímiles. Casa de Reparaz.

Comunican de Lodosa que el guarda del canal Victoria Eugenia, Pablo Ugarte, ha denunciado a la guardia civil a su convecino el encargado de la central eléctrica «Noria Gombas», José Calleja, al que le atribuye el hecho de haberle maltratado, produciéndole diversas contusiones, porque al defenderse de unos perros de aquel que le salieron ladrando y en actitud de morderle, se soliviantó el citado Calleja insultando y agrediendo en unión de su madre y hermana que salieron en su ayuda.

▲ Hona hemen Diario de Navarrara Arrarasko berri emaileak bidali zuena.



Berueteko

lapurrak (I)

herriko beste sei neskatxekin batera lontzako bide berria estreinatu zuten (denak ere 17-19 urte bitartekoak ziren) Ondoren, bidea bukatzen zen lekutik, **Askarriatik** aurrera, oinez, **Ireber, Orin** eta **Ernaizun** barna ibili ziren hango ikuspegi ederrak miretsiz. Hori irailaren 2an izan zen. Gaueko zortzietarako itzuli ziren, eta han omen zuten Nievesen azken opari bezala, afaria, prest-presta, bederatzi adiskideendako. Hamaikak artio iraun omen zuen otorduak, berandu garai haietarako.

Kontu hau Diario de Navarran irailaren 11an atera zen eta egun honen bezperan izan zen Berueteko krimena.

Jakina bazela besterik!

Izan behar ez zuen ba! Jendea bizi zen lanaren lanez, estu. Jateko, patata, banabarra, baba eta ogia: hori zen egunerokoa, txerrikoa ere bai, baina xuhur. **Txibarnean**, berriz, Goñitarrak haragi asean, ardi eta axuri errea ez zen falta izaten bertan. Hor ziren ardiak, ia urte guzian larrean, eta axuriak, udaberrian, etxe edo bordetan. Eta jende klase honek han eta hemen ostu eta etxera eramateko beti prest. Kontzientziarik ez.

Berueten izua ere hedatu zen kontzientziarik gabeko hauekin! Beldurra, izua, ikararia, nahi duzuen, baina Berueten jendea urduri. Elkarbizitza lasairik ez!

Esamesa franko bazterretan; emakumeek beren artean: *Ze ikusi biar ote diñu? Gizonezkoek berriz: Hemen e'tziok gauza onik!* Denak ere, bete-betean asmatuko zuten.

Alde batetik, izugarrizko poza zen, herriko neskatxa gazteek ere estreinatu zuten pozez karretera; hainen inportantea zen! Baina Berueten urak uher zetozen uher zetozenez.

Hurrengoan segituko dugu historia beldurgarri honekin.




Txurdan

- **Hiztegia**
- **Iraina:** ofensa
- **Ikararia:** “ikarie” Hiztegian ez dut topatu. Hemen hitz arrunta da
- **Epaitegia:** juzgado
- **Atxiloketa:** arresto
- **Atzerria:** extranjero
- **Errieta:** errexta hemen
- **Gaindituta:** desbordado
- **Salaketa:** denuncia
- **Isuna:** multa
- **Lauso:** borroso
- **Onberatasuna:** bondad
- **Erabakigarria:** decisivo
- **Miretsi:** admirar
- **Iraila:** septiembre. Hemen urria esan izan zaio.
- **Oparia:** premio
- **Banabarra:** hemengo hitza. Alubia. Hiztegi Batuan ez dut topatu. Jarri beharko dute.
- **Urduri:** nervioso
- **Uherra:** turbio



▲ Herrikoetxean, Karrerapen Korpus eguneko aldarea jartzen Esther Arano. 1924an ere hor berean jarriko zuten, ustez.



Eta ez makalak gainera

Maistrua. Ez nuen gogoko, ez nuen maite. Ez genuen gogoko, ez genuen maite. Eskola ere ez zen gure gustukoa. Eskola arrotza zitzaigun, erabat arrotza; niri behintzat hala zitzaidan.

Maistrua joan eta maistra etorri. Gauzak hobera egin zuten baina eskolan erakusten zigutena ez zen askorik aldatu.

Orduko kontuak oso lauso ditut ene buruan, hodei ilun griskara batean daude eta askorik ez dut gogoratzen; hori bai ariman utzitako errestoa hori dut barnean gordea: ez zen gustukoa eskola, ez genuen maite, ez zen gure baitakoa.

Eskola maite ez, eta mastru-maistrak ere halatsu. Horregatik, beharbada, ez dudala askorik gogoratzen? Horregatik, beharbada, ez nintzela fio gehiegirik gizon hark edo emakume hark erakutsitakoez?

Hala ere, gauza batzuk bai ederki iltzatuak gelditu zitzaizkidal

buruan. Oraindik gogoan dut, behin, bederatzi urtetto edo nituela, maistra historia ematen ari zitzaigun egun hura. Bederatzi urte besterik ez, eta seguru ez zela kontatzen zigun lehen gezurra; egun hartan hala aipatu zigun Ameriketako konkistaz ari zela:

-Espainolek zibilizazioa eta hizkuntza eman genien Ameriketako gizon-emakumeei. Hizkuntza eman genien. ZIBILIZAZIOA!!!!

Ez, ez, aurki ez zen lehenbiziko gezurra izanen, baina egun hartako gezurra dut buruan: hizkuntza eman ziela Espainiak Ameriketako indioei. Ene, ene!

Eta ene baitan pentsatu nuen, baina indio gizajo haiek ez ote zekiten hizketan? Mutuak ote

ziren? Edo aziendak bezalakoak ote ziren, orro egiten besterik ez zekitenak? Gezurra hain zen nabarmena eta borobila, behinbetiko agerian gelditu zitzaidala Espainiako Irakaskuntza. Geroztik ez nintzen inoiz fidatu eskoletan erakutsi izan didaten kontuez; hori, hori, kontuez, kontuak besterik ez baitziren askotan eskoletan erakusten zizkiguten gauzak. Hobera egin ote du Espainiako Irakaskuntzak?

Eta bukatzeko, eskola dela eta, zipla bat: *hemen maitasunak eta kontzientziak du balio, ez Legeak! Orain ere Legea hala egiaren artean dago korapiloa. Eta hori irakaste bakoitzaren esku dago hein handi batean.*

Nago, gure artean orain ere ardo mindu asko dabilela. Ardo frexkoa behar eta ardo ozpindua ez al dira saltzen ari?



Txurdan

Hiztegia

- Hodeia:** kalma ibiltzen dugu hemen: nube
- Lausoa:** borroso
- Fio izan:** fidatzen
- Aurki:** probablemente. Nafarroan esanahi horrekin ibiltzen dugu.
- Irakaskuntza:** Enseñanza
- Zipla/ziple:** indirecta mordaz. Hemen ere ibiltzen dugu hitz hau.



▲ Etsaingo eskola zaharra



Txapela lortu du aurrenekoz, lehenengo mailan

Jose Javier Zabaleta atzelariarekin bikote, txapelketa ikaragarria egin dute. Martxoaren 31n izan zen finala, bihotzekoa eragiteko modukoa, eta, borroka luze baten ondoren, Jokin Altuna eta Martija garaitzea lortu zuten. Hala ere, poza dastatzeko denbora gutxi izan da Ultzaman, zenoztarra buruz burukotik kanpo utzi baitu Aspek.

Apirilaren 3an aurkeztu zen buruz buruko txapelketa. Hutsune nabarmenbatzagoen: Peio Etxeberria ultzamarra. Duela aste batzuk buruz burukoan aritzeko iragarrita zegoen arren, Aspe enpresak aldaketa egin zuen azken momentuan, aldaketa bereziki mingarria, gainera, binakako txapelketa bikote izan zuen Jose Javier Zabaletak ordezkatu baitu. Txapela elkarrekin irabazi eta hiru egunetara ezagutu da berria. Horrela adierazi zuen bere atsekabea Jose Javier Zabaletak berak: "Pixka bat minduta nago azken orduetan gertatu denarengatik. Duela aste gutxi enpresak deitu zidan buruz burukoan egon nahi nuen galdetzeko. Nik pentsatu eta baietz esan nuen, nahi nuela".

Ulertzeko, zaila

Ulertzeko zaila den erabakia hartu du Aspe enpresak. Aipatu bezala, Peio Etxeberria iragarrita zegoen Zumaian jokatzeko, eta, azkeneko momentuan, txapelketan izanen den atzelari bakarrak ordezkatu du. Biek irabazi berri dute binakako txapelketa, baina, gainera, lau t'erdiko txapeldunordea da Etxeberria. Pasa den urteko binakakoan, Rezustarekin, finalerdien atarira ere iritsi zen, baina Peña eta Mariezkurrenaren kontra galdu zuten txartela. Buruz burukoan ere finalerdietatik gertu izan zen, Ezkurdiaren kontra galdu zuen arte. Hain zuzen ere, ultzamarraren laguna ere baden

Joseba Ezkurdiaren arabera: "Gustu txarreko erabakia izan da. Kolpe handia da eta Peio oso gaizki pasatzen ari da. Ez da horrelako egoera bat izaten den lehen aldia eta ez da azkena izanen. Peiok meritu asko egin ditu txapelketa honetan egoteko eta badirudi ez dela nahikoa".

Merezitako txapela

Aipatu bezala, bihotzekoa eragiteko finala izan zen martxoaren 31koa. Navarra Arenan aritu ziren Peio Etxeberria eta Jose Javier Zabaleta, Jokin Altuna eta Julen Martijaren kontra. Markagailuan oso berdinduta egon zen partida, ia denbora osoan. Une batean, ordea, Etxeberriak eta Zabaletak 14 eta 21erainoko aldea atera zieten gorriei. Altunak eta Martijak ez zieten hain erraz utziko, hala ere, eta, hortik aurrera 20. tantora ere iritsi ziren, urdinek azken tantoa lortu zuten arte.

Txapela horrelako final estu eta gogorrean irabaztea ikaragarria dela onartu dute. Etxeberriak jokatzeko duen bigarren binakakoa da. Zabaletak bosgarren txapela du lehiaketa honetan. Peio Etxeberriaren arabera biok izandako elkarrenganako konfiantza izan da garaipenera eramane dituenak. Zabaletak, bestetik, aurrelariak utzi dizkion pilota onak eskertu ditu.



Ate irekiak: Apirilak 17, 16:00etan

Elizondo lanbide eskola IIP

**Izen-ematea:
Apirilaren 29tik
maiatzaren 10era**

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritzari laguntza
- Haur Hezkuntza

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Erizaintzako zaintza lagungarria
- Natura inguruneko eta aisialdirako gidaria
- Mekanizazioa

OINARRIZKO LH

- Bulego Informatika
- Elementu metalikoen Fabrikazioa

LH BEREZIA

- Ostatu/garbiketa laguntzailea



argina behar du

**“Ikasi eta lan egin
eskualdean”**



Tel 848 431632



Korrikako irudiak, protagonista

Askok jakinen duzuen bezala, albisteak eta irratiko edukiak jasotzeko eta zabaltzeko dugu amezti.eus. Eta, hilabete honetan, Korrikako irudiak ere zintzilikatzeko baliatu dugu. Bertan aurkituko dituzue bidali dizkiguten guztiak, argazki galerian.

Pulunpe aldizkariaren eta Esan Erran irratiaeren elkargune da, nolabait, amezti.eus webgunea, eta bi horietako hainbat eduki topatuko dituzue. Arakutzen baduzue, beharbada, zuen gustuko zerbait aurkituko duzue!

Argazki galeria

Aipatu bezala, hilabete honetan nabarmentzekoa da korrikaren argazki galeria. Korrikak martxoaren 19an igaro zuen gure eskualdea, eta zero oskarbiak lagunduta, irudi ezin ederragoak utzi zizkigun. Herritarrek horietako asko bidali dizkigute eta haiekin osatu dugu web orriari aurkituko duzuen galeria.

Irakurleak ohartuko ziren horietako batzuk Pulunpe honetako Saltsa Purrustan ere paratu ditugula. 18 eta 19. orrialdeetan dituzue.

Korrikako argazki galeria ikusteko ▶



Esan Errango elkarrizketak

Esan Errango irratsaioetako edukiak ere zintzilikatzen ditugu Ameztiin. Batez ere, Egun Eron egiten ditugun elkarrizketak eta kolaborazioak. Elkarrizketei dagokienez, bi azpimarratuko ditugu atal honetan. Alde batetik, Itziar Olague lizasoar gazteari egin geniona. Izan ere, Ultzamaldean Gazte Asanblada osatzeko pausuak ematen ari dira Ultzamako hainbat gazte, martxoaren 1ean egin zuten lehenengo bilera irekia, eta berak kontatu zigun bileraren nondik norakoak.

Itziar Olagueri egindako elkarrizketa entzuteko ▶



Bestetik, Santos Etxegia Basaburuko alkatea ere pasa zen Esan Erran irratitik. Txokolateroren etxean adineko pertsonendako proiektua garatu nahi dutelako, eta, honezkero, beheko solairuko lanak egiteko esleipen prozesua ireki da. Egun Ero irratsaioan eman zituen xehetasun guztiak:

Santos Etxegiari Txokolateroren etxeko proiektuari buruz egindako elkarrizketa ▶





Kolaborazioak


Elkarrizketez gain, kolaborazio ugari izaten dira Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioan. Esate baterako Jule Goñi imoztarrak egiten duen Spoiler Alert. Filmek eta telesailak gomendatzen ditu, bertan, eta Ameztin aurkituko dituzue guztiak, tartean, azkena:

Spoiler Alert entzuteko



Egun Ero astelehenetik ostegunera izaten da, 10:00etatik 11:00ak bitartean. Eta, ostiraletan, Egun Ero Kantuz edo Memoriaren Txokoa. Azken honetan, martxoaren 8ko sorrera eta bilakaera; eta, Euskal Herrian mugimendu feministak izan zuen garapena landu genuen:

Memoriaren txokoa, martxoaren 8a



Pasa den hilabetean nabarmendu genuen, agenda inoiz baino potoloagoa dugula. Eta, apirilean sartu garen honetan ez da gehiegi argaldu. Eskualdean izaten ditugun hitzordu guztien berri izateko, ameztin sartu zaitezke.

Pulunpe guztiak ere aurkituko dituzu PDF formatuan

Zorionak Zorionak !

Sun-Tarek urteak beteiko ditu apirilaren 25ean. Zorionak!



Maren Elordi Ilbergek urteak beteiko ditu apirilean. Zorionak familiaren partez!



Zoriondu zure laguna Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Errepublikaren hilabetea, letren errepublikan

Errepublika (letrena) aldarrikatzea erabaki dugu gure liburutegian, eta, horretarako, hilabete hau aukeratu dugu; alde batetik, II. Errepublika, (apirilaren 14ean) eta, bestetik, Liburuaren Eguna (apirilaren 23an) ospatzeko.

Honen guztiaren inguruan zenbait jarduera programatu ditugu ostiral kulturaletan. Hilabete osoan zehar, II. Errepublikarekin eta Gerra Zibilearekin lotutako kartel-bilduma bat ikusgai egongo da Larraintzarko Bentako beheko solairuan. Nicolas Guerendiain Irungo Errepublikarren Elkartek maileguan utzi ditu, eta osasunari, higieneari, lan-eskubideei, feminismoari eta abarri buruzko kartelak dira, garaiko propaganda politikoaren berezko arte karakteristikoarekin.

Gainera, hilaren 19an, NAFSE36ren eskutik, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkartek tailer bat eskainiko digu, Errepublikatik eta 36ko Estatu kolpetik gaur egunera arteko ibilbidea egiten duten lau film labor argitaragabeekin.



Gainera, orduko arazo batzuk gaur egungo beste batzuekin lotuko ditugu, hala nola, migratzaileei ukatzen zaizkien eskubideekin. Hitzordua 19:00etan izango da Larraintzarko Bentan.

Liburuaren Egunari dagokionez, joan den apirilaren 5ean Iratxe Retolaza ikertzaile eta euskaltzainak bisita egin zigun liburutegian, *Nola irakurri literatura ikuspegi feministarekin izeneko hitzaldi interesgarria emanez.*

Ikus dezakegunez, joan den martxoko oihartzunak, Korrika ospatu genueneko eta martxoaren 8koa, oraindik ere entzuten dira liburutegi honetan eta, horrela, apirilaren 26an, arratsaldeko 19:00etan, berriz ere Larraintzarren, film labor gehiago ikusteko aukera izango dugu, oraingo honetan LABURBIRAREN barruan, egile euskaldun berrien lana bultzatu eta entzuleen eskura jarri nahi duen bira ibiltaria. Oraingo honetan hauek izan dira aukeratutako lanak: DENA ASMATUTA DAGO (Jone Arriola), KATALINAREN ZORIA (Guillermo Ordás), ERRO (Amaia Lejarreta), BABESA (Ander Iruretagoyena), MUNDU BERRI BAT (Mikel Alvarez), ZIRRARA (Ane Cuesta), TALKAK (Ilune Diaz eta Jordi Nuet), BETIZU BURU (Kim Maiteny Munoa). Oraindik izena baieztatu gabe dugun arren, zuzendariren baten bisita espero dugu.



Ostiral kulturalak ospatzeko, hilero gutxienez kontzertu bat programatzeko ohitura mantentzen dugu, eta, oraingoan, Simone Negrín aktore italiarrak





Markosen palindromoekin hainbat lagunek (Monti, Exprai, Eider Iturriaga, Maitane Azurmendi, Juantxo Egaña...) egindako ehunetik gora kartel biltzen ditu, Joseba Sarrionandiaren aurkezpen edo kontestualizazioarekin. Erdi jolasean erdi benetan, emaitza "arteletra" artefakto ederra eta ikaragarri barregarria da, baina txistean geratu gabe, gauzak planteatzera datorrena. Markosek "hizpilu" hitza asmatu zuen: geure bizitza eta geure mundua islaturik, iruzkindurik eta eztabaidaturik gauden hizpilu honetan, umorea, hemen, irribarre baten moduan zabaltzen den zauria da.

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburuzaina



eta JAC bluesmanak bisitatuko gaituzte, zuzeneko musika eta narrazioak nahasten dituen ikuskizunarekin. Bertan, bi artistek musika modernoaren genero epiko eta ospetsuenaren historian zehar ibilbidea egiten dute. Umorea, historia eta bluesa, apirilaren 12an, ostirala, 19:00etan Gizarte Etxeko aretoan.

Gomendio bat

"Nik eta Bogartek ke trago batekin". "Ea, bilaka libre ba!". "Lau tribu birtual"... Zer dute komunean esaldi horiek guztiek? Horiek guztiak palindromoak dira, hau da, zuzenbidean edo alderantziz modu berean irakurtzen diren esaldiak. Letren hilabete errepublikar honetan ez genuen joan nahi beraiekin jolasten den liburu bat gomendatu gabe, palindromo hauekin eta beste letra-joko batzuekin, Joseba Sarrionandiari esker (duela hilabete batzuk bisitatu zuen liburutegi honen laguna). Sarrionandiak Markos Gimeno ermuar palindromistaren errebindikazioa egiten du liburu honetan. Liburuak



2024ko otsaila

2024ko otsailean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

Guk dakigula, otsailean ez da jaiotzarik izan

Ezkontzak:

Guk dakigula, otsailean ez da ezkontzarik izan.

Heriotzak:

BASABURUA Ihaben

Martina Larrion Arrarats, **Miltxoneko** etxeandrea, otsailaren 6an hil zen, 96 urtetan.



▲ Martina Larrion

IMOTZ Etxaleku

Isidro Mas Vidal, **Mendigaingo** nagusia, otsailaren 11an hil zen, 74 urtetan.



▲ Isidro Mas

Zarrantz

Elena Etxeberria Mondela, **Karakoetxeko** alaba, otsailaren 11an hil zen, 77 urtetan.



▲ Elena Etxeberria

ULTZAMA Iraizotz

Luisa Victorio Sierra, **Iraizozkoa** otsailaren 2an hil zen, 84 urtetan.



▲ Ama Luisa

Lizaso

Carlos Larramendi Garbisu, **Lizasokoa** otsailaren 19an hil zen, 59 urtetan.



▲ Carlos Larramendi

“

Beti izanen
zaituztegoan

”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR

ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Dokumentalaren aurkezpenak

Maiatzak 3, ostirala,
Ultzaman, Larraintzarko Bentan

Maiatzak 17, ostirala,
Basaburuan,
Aizarozko Luzia Goñi kultur etxean

Maiatzak 26, igandea,
Imotzen, Zaparen etxolan



Esan Erran
IRRATIA
107.9 FM



DIALEKO AZKENAK

Esan Erran
irratia, 25 urte.

